



SARRERA

Gaur egungo gizartean gero eta jende gehiagok kontsumo arduratsua egin nahi du, ingurunea zainduz eta aldi berean gizartean eragin positiboa sortuz. Hala ere, askotan zaila izaten da jakitea nola lagundu modu erraz, garden eta eraginkorrean. Beharrian horretatik sortu da ANOTHER LIVE, bigarren eskuko produktuak saltzeko eta erosteko plataforma solidario bat.

ANOTHER LIVE aplikazioaren bidez, erabiltzaileek arropa, liburuak edo bestelako objektuak saldu eta erosi ahal izango dituzte, baina proiektuaren berezitasun nagusia da salmenten bidez lortutako dirua ez dela norberarentzat izango, baizik eta automatikoki kausa sozial batera bideratuko dela, hala nola, Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE) batera, ikerketa medikora edo laguntza behar duten pertsonengana.

Gure helburua ez da soilik objektuei bigarren bizitza bat ematea, baizik eta erosketa-prozesua ekintza solidario bihurtzea. Horrela, saltzaileek eta erosleek batera laguntzen dute: alde batetik, kontsumoa murrizten da eta hondakinak gutxitzen dira, eta bestetik, pertsona askoren bizi-kalitatea hobetzen laguntzen da. Ekintza txikien bidez, aldaketa handiak sortzea da proiektuaren oinarria.

Azkenik, logoaren diseinuak ere proiektuaren balioak islatzen ditu. Kolore berdeak eta beltzak jasangarritasuna, berrerabilpena eta konpromiso soziala sinbolizatzen dituzte. Pertzaren irudiak arroparekin eta berrerabilpenarekin duen lotura azpimarratzen du, eta "ANOTHER LIVE" izenak objektuek, bereziki arropak, bigarren bizitza bat izan dezaketela adierazten du. Mezu nagusia argia da: erabilitako gauzek ere balioa dute, eta aldaketa positiborako tresna izan daitezke.

Laburbilduz, ANOTHER LIVEk jasangarritasuna, elkartasuna eta teknologia uztartzen ditu, eguneroko ohituretan txertatutako irtenbide praktiko bat eskainiz. Ideia nagusia oso argia da: kontsumitzea ekintza solidario bihurtzea, modu erraz, irisgarri eta guztion eskura dagoen plataforma baten bidez.